110/2025 EBAZPENA, ENPLEGU PUBLIKOKO SAILBURUORDEARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAKO LAN-KATEGORIAKO LAN-POLTSA SORTZEN DUENA ETA LANGILEAK INTEGRATZEN DITUENA LABORATEGIKO TEKNIKARI FAKULTATIBOA LANPOSTUETAN.

RESOLUCIÓN 110/2025, DE LA VICECONSEJERA DE EMPLEO PÚBLICO, DE PUBLICACIÓN DEL LISTADO DE PERSONAL INTEGRANTE DE LA BOLSA DE TRABAJO DE LA CATEGORÍA LABORAL DEL PUESTO DE TÉCNICO FACULTATIVO/TÉCNICA FACULTATIVA DE LABORATORIO DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS.

Lehenengoa.- Enplegu Publikoaren Sailburuordetzaren 2025/108 EBAZPENAREN bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko LAN-KONTRATUKO LANGILEEN lan-poltsak berrantolatu, egokitu eta sortzeko irizpideak ezartzen dira.

Primero.- Mediante RESOLUCIÓN 2025/108, de la Viceconsejería de Empleo Público, se establecen los criterios para la reordenación, adecuación y creación de las bolsas de trabajo de PERSONAL LABORAL con las que atender las prestaciones de servicio de carácter temporal en la Administración de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos.

Bigarren artikuluan, laborategiko teknikari fakultatiboaren lan-poltsa eratu da, eta II. eranskinean integrazio eta antolamendu irizpideak ezarri dira.

En el artículo segundo se constituye la bolsa de Técnico Facultativo/Técnica Facultativa de Laboratorio y en el Anexo II se estabecen los criterios de integración y ordenación.

Ebazpen hori betez, bigarren atalean adierazitako irizpideak betetzen dituzten langileak sartzen dira, hirugarren ataleko irizpideak aplikatzearen ondoriozko puntuazioarekin.

En cumplimiento de la citada Resolución, se integra al personal que cumple los criterios indicados en el apartado segundo y con la puntuación resultante de aplicar los criterios del apartado tercero.

Bigarrena.- II. eranskineko laugarren atalean xedatutakoaren arabera, langileak lanerako prest daude eta honako aukera hauek lehenetsita izango dituzte:
-Edozein prestazio mota
- Edozein lanaldi
- Edozein ordutegi
- Edozein eremu geografiko

Segundo.- Conforme a lo dispuesto en el apartado cuarto del Anexo II, el personal se integra en la situación de disponible y tendrá determinadas por defecto las siguientes opciones:
- Cualquier modalidad de prestación
- Cualquier jornada
- Cualquier horario
- Cualquier zona geográfica

Ebazpen honetan ezarritako prestasun-egoeraren aldaketa eta lehenetsitako lehentasunak aldatu ahal izango dituzte interesdunek Lan Poltsen Atariaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen duen Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduan aurreikusitakoaren arabera. Aldaketek egiten diren egunaren biharamunetik aurrera izango dituzte ondorioak.

El cambio de situación de disponibilidad y las preferencias establecidas por defecto en la presente resolución podrán ser modificadas por la personas interesadas a través del Portal de Bolsas de Trabajo, de conformidad con lo previsto en la Orden de 7 de enero de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se regula la selección del personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos. Los cambios surtirán efectos a partir del día siguiente al que se efectúen.

Hirugarrena. - Aipatutako 2025/108 Ebazpenean xedatutakoarekin bat etorriz, ebazpen horren ondoriozko

Tercero.- De acuerdo con lo dispuesto en la referida Resolución 2025/108, se procede a publicar el listado

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

zerrenda argitaratzen da bertan adierazitako helbide elektronikoetan.

Laugarrena.- Lan-poltsen kudeaketaren datu pertsonalen tratamendua Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren Tratamendu Jardueren Erregistroan (AGT) egingo da, "Hautaketa-prozesuak" izenekoan. Organo arduraduna Enplegu Publikoaren Zuzendaritza izango da, eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak baliatu ahal izango dira, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko eskubideak ere, Enplegu Publikoaren Zuzendaritzan.

Informazio gehigarria:

https://www.euskadi.eus/web01-aprat/eu/ac34aRatWebWar/control/fichaRat/1281?locale=eu

Azaldutako guztiagatik eta emandako eskumenaz baliatuz, honako hau

EBATZI DUT

Artikulu bakarra. - Laborategiko teknikari fakultatiboaren lan-poltsa osatzen duten langileen zerrenda argitaratzea lan-poltsen atarian. Bertara egoitza elektronikoaren eta helbide honen bidez sar daiteke:

www.euskadi.eus/lanpoltsak

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. - Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Lan Poltsen Atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena. - Ebazpen honek Lan Poltsen Atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean.

resultante en las direcciones electrónicas indicadas en la misma.

Cuarto.- El tratamiento de datos personales de la gestión de las bolsas se realizará en el Registro de Actividades de Tratamiento (RAT) del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno, denominado “Procesos selectivos”, siendo el órgano responsable la Dirección de Empleo Público y pudiendo ejercitarse los derechos de acceso, rectificación y supresión de datos, así como de limitación u oposición a su tratamiento ante la Dirección de Empleo Público.

Información adicional:

https://www.euskadi.eus/web01-aprat/es/ac34aRatWebWar/control/fichaRat/1281?locale=es

Por todo lo expuesto y en virtud de la competencia atribuida,

RESUELVO

Artículo único. - Publicar el listado de personal integrante de la bolsa de trabajo de Técnico Facultativo/Técnica Facultativa de Laboratorio en el Portal de Bolsas de Trabajo, al que se puede acceder a través de la sede electrónica y de la siguiente dirección:

www.euskadi.eus/bolsastrabajo

DISPOSICIONES FINALES

Primera. - Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno en el plazo de un mes desde el día siguiente de su publicación en el Portal de Bolsas de Trabajo.

Segunda. - La presente Resolución surtirá efectos a partir del día siguiente de su publicación en el Portal de Bolsas de Trabajo.

En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma electrónica.

Maite Barruetabeña Zenekorta
ENPLEGU PUBLIKOKO SAILBURUORDEA / VICECONSEJERA DE EMPLEO PÚBLICO